



Esp.kodea: 2021PHEL0004
Titularra: INGURUMENA

Gaia: 2021eko Lanbideren Enplegua
Sustatzeko Programa: 3 baso erreka langile

ALDIBATERAKO KONTRATAZIOA

1/ KONTRATAZIOA

LANPOSTUA	PROIEKTUA	JARDUNA	IRAUPENA
3 baso/erreka langile (peoiak)	Erreka eta natura guneen mantenua	% 100	5 hil.

2/ KONTRATATZEKO BALDINTZAK

Hautagaiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaile moduan izena emanda dauden pertsona langabeak izatea.
- Deialdia egin eta sei hilabete lehenagoz Arrasaten erroldaturik egotea.
- Ezingo dira kontratatu 2019ko edo 2020ko deialdietan kontratatuta izan diren pertsonak, hautagai libreak ez badaude behintzat. Baldintza hau Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak egiaztatu eta informatuko du.
- B gidabaimena.
- Lanbidek enplegua sustatzeko deitutako laguntza deialdiko baldintzak betetzea (EHAA 2021/06/30). Horren arabera, hautagaiak kolektibo hauetako batekoak izan behar dira:
 - 35 urtetik beherakoak.
 - 45 urtetik gorakoak.
 - Luzaroko langabeak.
 - Gizarte-bazterketa jasateko arriskua duten pertsonak.

3/ HAUTAGAIEN AURRETIKO AUKERAKETA

LANBIDEk egingo du hautagaien aurretiko aukeraketa, ezarritako baldintzen arabera

4/ HAUTAGAIEN AZKEN AUKERAKETA

Hautagaien azken aukeraketa Udalak egingo du, egokitasun probak eginez eta hautagaiek egiaztatutako merituak baloratuz.

5/ EPAIMAHAIA

Hautaketa prozesuko kalifikazio epaimahaia honela eratuko da:

Epaimahaiburua:

- Udal teknikari bat edo arlo-burua.

Epaimahaikideak:

- Postuari dagokion arloko karrerako funtzionario bat.
- Postuari dagokion arloko karrerako funtzionario bat



Esp.kodea: 2021PHEL0004
Titularra: INGURUMENA

Gaia: 2021eko Lanbideren Enplegua
Sustatzeko Programa: 3 baso erreka langile

- Udal funtzionario bat, ordezkaritza sindikalak proposatuta.

Idazkaria:

- Udal funtzionario bat.

6/ INFORMAZIOA ETA KONTSULTAK

Deialdi honi buruz Udalak hartzen dituen erabakiak (oharrak, aurrez aukeratutako hautagaien zerrenda, azterketak edo elkarrizketak egiteko deialdiak, hautaketa proben emaitzak, eta abar) udaleko web orrian argitaratuko ditu (www.arrasate.eus) eta interesdunen eskura jarriko ditu BAZen, Biztanleentzako Arreta Zerbitzuan.

Deialdi honi buruz interesdunek behar duten edozein informazio osagarri jasotzeko, hona jo dezakete:

- **BAZ (Biztanleentzako Arreta Zerbitzua)**
 - Arano eta Gartzia maisu-maistra 8
 - Tel.: 943 252000
 - baz@arrasate.eus

7/ HAUTAKETA ARAUAK

- **Merituak:**
 - Euskara: 1 HE egiaztatzea (agiriz edo dagokion proba eginez): 10 puntu
 - Emakumea izatea: 10 puntu.
 - Diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DSBE) titular edo onuraduna izatea: 10 puntu.
 - 55 urtetik gorakoa izatea: 10 puntu.
 - Legezko ezintasun izaera edukitzea, ehuneko 33koa edo hortik gorako elbarritasun maila batekin, eta bateragarria izatea dagozkion zeregin eta egitekoak betetzearekin: 5 puntu.
- **Probak**
 - *Teoriko-praktikoa:* baso-langile lanbidearen jakintzari buruz: 0-50 puntura baloratuko da eta gutxienez 25 atera behar da aurrera egiteko.
- **Hautaketa:**
 - Puntuazioaren araberako hautagaien zerrenda osatuta, lehenik eta behin, honako kupo hauek beteko dira hurrenez hurren:
 1. 55 urtetik gorakoak: hautagai bat.
 2. Emakumeak: hautagai bat.
 3. Diru sarrerak bermatzeko errentaren (DSBE) titular edo onuradunak: hautagai bat.